

## 9. FUNTSEZKO JARDUERAK

Diseinatu dugun ideari hasiera eman diezaiogun, ezinbestekoa zaigu informatikaren arloan ezagutzak dituen aditu bat lortzea. Horrela, lana burutzea posiblea izango da. Web orria zein beharrezkoak diren atal guztiak muntatzea ahalbidetuko du, gure asmoarekin jarrai dezagun.

Horretaz gain, beharrezkoa litzateke bilerak eta edozein motatako akordiora heltzeko erabiliko dugun gunea. Hau da, erositako edo alokatutako esparru bat non erabakiak hartzeko batzarrak egitea posiblea den. Bertan, gure enpresa osatzen duten buru, bazkide eta kide arruntak biltzea posiblea izango da.

Material fisikoari dagokionez, ez da ezer berezirik behar. Izan ere, gure negozio-idea erabat online da, hau da, bezeroak internetera sartzeko konexioa izanez gero, (edo sakelako telefonoa edo dena delakoa) ez du gure gunera etorri beharra. Hala ere, nahi izanez gero, telefono zenbaki bat eta posta elektronikoa bat izango ditugu eskuragarri, gurekin harremanetan jartzea bezeroei zailtasunik suposa ez diezaien.

